



## **RACOR egonaldi deialdia.**

### **Ebazpena:**

Maiatzaren 8an, Susana Arias (CCCB), Clara Piazuelo (RACORi lotutako ikertzailea), Ane Agirre (Tabakalera) eta Anna Manubens (Hangar) epaimahaikideek **Constanza Piña [Corazón de Robota]-ren Sedna proiektua** aukeratu zuten RACOR bekaren irabazle gisa.

**78 eskaera** jaso ziren bekaren lehen edizioan eta epaimahikideek eskerrak eman nahi dizkie hautagai guztiei proposamenak idatzi eta RACORek proposatzen duen testuinguruan proiektatzeko erakutsitako energia eta dedikazioagatik.

Sedna Lurraren atsekabe metalikoari buruzko kontaketa zientifiko-poetiko multikanala da, eta gorputz espekulatibo organikoen, mineralen eta zerutarren ahotsak lotzen ditu. Txileko Andeetako -zehazki, Atakamako basamortuko- mineralen erauzketa oinarri hartuta, Neptunoren orbitatik harantzago dagoen Sedna planeta nanoaren eta Lurraren arteko zientzia fikziozko elkarrizketa nostalgikoa egin nahi du. Galaxiako leku ilun eta ezezagunean dago planeta: eguzki sistemarekiko urrunen dagoen galaxiako leku ilun eta ezezagunean, arroka, izotz eta gas izoztuez osatutako Oort hodei hipotetikoan. Sednak antzinako inuit jainkosa baten izena darama: ozeano artikoetako eta mundu izoztuko erreginarena. Inuit mitologiaren arabera, Sednaren espirituak ur ilunak zaintzen ditu, uretara iragazten diren gure ekintza txarrei erantzuteko ekaitzak bidaliz.

Constanza Piña Hego Amerikan hazi zen, Ozeano Bareko zarata zuriaren eta mineral espektro zabal batez betetako Andeetako mendikatearen artean. Testuinguru elektromagnetiko berezi horrek txikitatik eragin zion bere irudimenari. Haren ikerketa artistikoak zarata azterzen du, soinu-, gizarte- eta kultura-fenomeno gisa. Haren praktikak ikuspegi teknofeminista du, eta teknologia garaikideak artisau-teknika tradizionalekin konbinatzen ditu, open hardware gailuak, DIY elektronika, e-ehunak, sintetizadore analogikoak eta antena esperimentalak garatuz.

RACOR ikerketa artistikoaren edozein fasetan laguntza emateko **Hangar, CCCB eta Tabakalerak sustatutako programa** pilotua da. Hiru zentroek beren testuinguruak, sareak eta/edo zerbitzuak eskura jartzen dituzte artea, zientzia, teknologia eta gizarte bateratzen laguntzeko. Egonaldi gurutzatuekin batera ikerketarako laguntza emango da prozesu osoan zehar, ikasketa partekatuak lortu ahal izateko proiektu pilotuan zehar.

**TABAKALERA**



Programa hau ACTS SAREAREN ekimenaren parte da, zeina UOC; Bartzelonako Arte, Zientzia eta Teknologia Hub berria; Hac Te eta Fundación Daniel y Nina Carasso-k sustatzen duten, estatu-mailan espazio komun berria sortzeko, eta tipologia ezberdinak, baina ACTSei dagokionez amankomuneko interes eta helburuak dituzten erakunde eta proiektuen arteko elkarlanerako testuingurua ahalbidetzeko.

Onera opa diogu Constanzari Tabakalera eta Hangarreko egonaldian.

Donostian, 2023ko maiatzaren 18an

Hac  
Te

UOC  
Universitat Oberta  
de Catalunya

HANGAR.  
ORG

Carasso  
Daniel y Nina  
Fundación asociada a la Universidad del País

CCCB  
Centre de Cultura  
Contemporània  
de Barcelona

TABAKALERA  
T

KULTURA  
GARAIKIDEAREN  
NAZIOARTEKO  
ZENTROA

CENTRO  
INTERNACIONAL  
DE CULTURA  
CONTEMPORÁNEA

INTERNATIONAL  
CENTRE FOR  
CONTEMPORARY  
CULTURE

tabakalera.eus